

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea SAUI 1 eta 3 sektorearen (Aguraingo industrialdea) egikaritze unitate bakarrerako konpentsazio proiektuaren aldaketa puntualari

2019ko uztailaren 10eko tokiko gobernu batzordearen erabakiaren bidez, behin betiko onespena eman zitzaion SAUI 1 eta 3 sektorearen (Aguraingo industrialdea) egikaritze unitate bakarrerako konpentsazio proiektuaren aldaketa puntualari, Aguraingo HAPOaren bigarren aldaketa puntualaren arabera. Araba Garapen Agentziak aurkeztu zuen aldaketa hori.

Hona hemen aldaketa puntualaren edukia:

SAUI 1 eta 3 sektorearen (Aguraingo industrialdea) egikaritze unitate bakarrerako konpentsazio proiektuaren aldaketa puntualak eragina du proiektu horren ondoriozko finka hauetan: 18 zenbakia (industria erabilerara zuzendua), 20 zenbakia (gizarte eta herri intereseko zonara zuzendua), 24 zenbakia (bideetara zuzendua), 25 zenbakia (aparkalekuetara zuzendua), 26 zenbakia (espaloietara zuzendua) eta 27 zenbakia (espazio libreetara zuzendua).

Aipatutako aldaketak honela eragiten die finka horiei:

– Garai bateko 18 zenbakiko ondoriozko finka (1-1615 katastro lurzatia), zeinak gaur egun industria erabilera baitu, bitan zatituko da: zati batek industria erabilera izango du (18A ondoriozko finka), eta bestea gizarte eta herri intereseko zonarako izango da (18 B ondoriozko finka).

– Garai bateko 20 zenbakiko ondoriozko finkak (1-1610 katastro lurzatia), zeina gaur egun gizarte eta herri intereseko zonarako baita, industria erabilera izango du (20N ondoriozko finka).

– Garai bateko 24 zenbakiko ondoriozko finkan, zeina bideetarako baita eta Donejakue bidearen zati bat hartzen baitu, mugak aldatu egingo dira zati horretan, 13 ondoriozko finkaren mendebaldetik (1-1609 katastro lurzatia) 20N ondoriozko finka berriaren mendebaldera.

– Garai bateko 25, 26 eta 27 zenbakiko ondoriozko finkak (aparkaleku, espaloietara zuzendutakoak) elkartu egingo dira aurreko finkarekin (bideetara zuzendutakoarekin) eta ondoriozko finka bakarra osatuko dute, guztizko azalera aldatu gabe, eta mugak eguneratuko dira.

Nolanahi ere, aipatu diren aldaketen ondorioz ez dira egungo aprobetxamenduak handituko, ez eta guztizko azalera aldatuko ere, eta une oro beteko dira HAPOan eremu horretako partzelazioentzat ezarrita dauden gutxieneko zehaztapenak.

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, berraztertze errekurtsua jar daiteke alde aurretik, erabaki hau hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekoek gain, egoki irizitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Agurain, 2019ko uztailaren 29a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES